

2012an ospitaleratutakoen ia erdiak 65 urte edo gehiago zituen


Haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa %4 gutxitu dira

Euskal AEko ospitaleetan, 2012an 310.389 alta eman ziren; publikoetan %76,5, pribatuetan %23,5, Eustaten datuen arabera.

Ospitaleratutakoen %97,3 Euskal AEn bizi zen (%48,8 Bizkaian, %33,2 Gipuzkoan, %15,3 Araban); %2,6 beste probintzietan (Kantabrian eta Burgosen, batik bat); %0,1 atzerrian.

Gizonak %48,4, emakumeak %51,6. Talde jendetsuena, 65 urte edo gehiagokoak. Hauek ugarituz joan dira: 2000n %39,5 ziren, 2012an %44,4; 79 urteko jendea ospitaleratzen da gehien. Garrantzian bigarren taldea, 15-55 urte bitartekoa; 2012an txikitu egin zen, erditzeak gutxitu ziren-eta.


Alta hartutako pazienteak, adin-taldean arabera. 2000-2012



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. Euskal AE

2012an gehien diagnostikatutako patologia begi-lausoak izan zen; berriz ere nerbio-sistemaren eta zentzumen-organoen gaixotasunak izan ziren ospitaleratze-arrazoi nagusiak (%12,3). Ondoren zirkulazio-aparatua eta digestio-aparatua (%11 pasa biak), eta tumoreak eta gaixotasun osteo-muskularrak (%9 pasa bakoitza).

Alta hartutako pazienteak, gaixotasun ugarienen arabera. 2012



Aurreko urtearen aldean, ohiko ospitaleratzeak (pazienteak gutxienez egun 1 pasatzen du bertan) %0,6 gutxitu ziren 2012an (estatuan %-0,8). Haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa bigarren urtez jarraian gutxitu ziren: 2012an %4 eta 2011n %1.

Gizonak batez ere digestio aparatuagatik (%14) eta zirkulazio-aparatuagatik (%13,8) ospitaleratu ziren. Lehen taldean iztai-herniak eta behazun-harriak aurren eta bigarreanean bihotz-gutxiegitasuna.

Emakumeak haurduntzak, erditzeak eta erdiberriarok eramaten dituzte ospitalera gehien bat; batez ere haurduntza aurreratuak. Nervio-sistemaren eta zentzumen-organoen gaixotasunak (%13,6) datoz ondoren eta zirkulazio-sistemarenak (%9,8); lehen taldean begi-lausoak aurren eta bigarreanean barizeak.

Tumoreak ospitaleratzeko laugarren arrazoia ditugu (%9,5); gizon gehiago, eta ugariak maskuria, kolon eta titian (emakumeak).

Gaixotasun osteomuskularrak (%9,2) bosgarren ditugu; gehien bat 45-64 urte bitartekoei eragin zieten eta berdintsu gizon zein emakumeei, baina belaunak eramaten ditu gizonak ospitalera eta osteoartrosiak emakumeak.

Arnas-gaixotasunak (%9) seigarren; gizon gehiago eta aurren bronkitis kronikoa eta pneumonia.

Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, diagnostiko talde ohikoenei jarraiki sexuaren eta adinaren arabera

Adin-talde handiak	Altak guztira (*) %	Sexua		Adin-taldeak			
		Gizonak	Emakumeak	0-14	15-44	45-64	65 eta gehiago
Total	100	150.308	160.081	16.314	75.690	80.549	137.836
Nerbio-sistema eta zentzumen organoak	12,3	16.358	21.833	1.310	3.134	7.943	25.804
Zirkulazio-aparatua	11,8	20.731	15.749	117	3.161	9.688	23.514
Digestio-aparatua	11,7	21.112	15.291	1.673	7.989	11.764	14.977
Tumoreak	9,5	15.797	13.602	429	3.862	10.912	14.196
Osteomuskularrak	9,2	14.245	14.452	404	6.703	11.362	10.228
Arnas aparatua	9,0	16.314	11.565	3.613	4.368	5.090	14.808
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	7,9	-	24.603	7	24.495	101	-

(*) alta guztien %

Iturria: Eustat. Euskal Aeko ospitaleetako erikortasu estatistika

Ospitaleko batez besteko egonaldia, 5,8 egun 2012an (2011n 6). Egonaldi luzeenak: asaldu mentalak (14,4 egun), jaiotza-inguruko gaixotasunak (11,2), infekzioak (9), tumoreak (7,9).

Ospitale-hilkortasuna %2,4; hilgarrien tumoreak (%22,8) eta zirkulazio-gaixotasunak (%22,7), hilkortasun orokorraren ordena berean.

Oharra: Datuak akutuen ospitaleetakoak dira. Ohiko ospitaleratzeak hartu dira aintzat, gutxienez gau batekoak eta egunean bertan burutzen direnak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

Ospitaleetako erikortasun-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Ospitaleetako erikortasun-estatistika. Datu bankua